

ENPRESAN BURUTURIKO BERRIKUNTZA PROIEKTU ONENARI SARIA CONCURSO DE MEJOR PROYECTO INNOVADOR EN LA EMPRESA

GOIEKI, Goierriko eskualdeko garapen agentziak, "Enpresan buruturiko berrikuntza proiektu onena"ren saria antolatzen du lehen aldiz.

Goieki, eskualdeko 18 udalekin batera (Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama y Zerain), berrikuntza gertuko prozesu bilakatzeko helburuaz ari da lanean, ez baita jarduera teknologikoren batean edo I+G sektoreetan diharduten enpresen ondarea soilik eta zentzu horretan, gizarte goierritar osora zabaltzea du xede.

Horrela, berrikuntza garatzea lehentasunezko aspektu bilakatu da, baina horrez gain, etengabeko hobekuntzaren beharra nabarmentzen da, lehiakortasun maila altuari eusteko ezinbesteko baldintza dena. Hain zuzen, enpresen jakintza, emaitza ekonomiko eta sozialetan eraldatzeko ahalmenean datza gakoak eta berrikuntza gailentzen den prozesu horretan, gizarte osoa da protagonista; Goierriko kasuan, industria sektoreak duen pisua ikusita, enpresa goierritarrak prozesuaren giltza bilakatzen dira.

Bestetik, enpresaren jakintzari erreparatu egiten badiogu, aspektu teknologikoez gain haratago garamatza honek, non, antolaketa, barneko harreman, marketing, produktu eta prozesuak bertan berrikuntzarako subjektu posible bilakatzen diren. Berrikuntza hau izango da hain zuzen garapen ekonomikoaren giltzarri, bera barneratzen duten enpresak etorkizunerako enpresak izango direlarik, lehen aipatu bezala, egungo sistema globalak ezarritako lehiakortasun maila altuari erantzuteko asmoz.

Berrikuntza, prozesu dinamiko bat den heinean, ezin liteke hausnarketa eta plangintza soil batean geratu; ekintzetara igaro behar gara emaitzak lortzeko. Horregatik, ezinbesteko bilakatzen da prozesuaren jarraipena eta kasuan kasuko egoeratarako moldaturiko eta egonkorrak diren errekurtsioen erabilpena.

I. HELBURUAK

- Berrikuntza prozesuak helburu dituzten inbertsioen gauzatzea ahalbidetzeko laguntzak ematea ETEei.
- Enpresak berrikuntza prozesuak martxan jarri ditzaten eragitea.
- Enpresek berritzeko egindako ahaleginak eta euren aldetik aurrera eramanezko ekintzak aintzat hartu eta publikoki zabaltzea.
- Enpresa goierritarrak are lehiakorrago izateko laguntzea.

II. NORI ZUZENDUA

2009 urtean enpresan bertan gauzatzeko berrikuntza proiektu bat definitu duten Goierriko eskualdeko ETEak.

III. SARIA

Proiektuko 6.000€ izango da laguntzaren zenbatekoa.

Laguntzaren ordaintzea proiektua martxan jarri eta gauzatzean egingo da.

IV. AGIRIAK ETA BESTELAKOAK

Aurkeztu beharreko dokumentazio honakoa izango da:

- ❖ Eskaera orria dagokion datuekin baterik
- ❖ I. eranskina
- ❖ Proiektuaren memoria:
 - Jardueraren deskribapen laburra eta enpresaren laburpen historikoa.
 - Ekiteko proiektuaren eta lortzen den berrikuntza mailaren deskribapena, hasierako eta amaierako egoerak zehaztuz.
 - Lan-plana, prozesuaren datak, etab.

Modu berean, ebaluazioan kontuan hartzeko informazio edota proiektuaren edozein balorazio aurkeztu ahalko da.

Eskaerak honako helbidean aurkeztu beharko dira:

GOIEKI S.A.
Mallutz industrialdea, 18.pab.
20240 ORDIZIA

edo honako helbide elektronikora bidaliz: niko.goieki@goierri.org

Informazio gehiago:

Tel. 943 16 00 40
www.goierri.org
niko.goieki@goierri.org

V. LANA AURKEZTEKO EPEA

Dokumentazio osoaren aurkezpeneko epea **2010ko otsailaren 26an** amaituko da.

VI. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Lehen aipatu bezala, berrikuntza prozesua enpresaren esparru orotara iristen dira. Horrela, aintzat harturiko gai edo programak honako moduan sailka genitzake:

- Produktu berrikuntza: ondasun edo zerbitzu berria sortu edota hauen hobekuntza nabarmena eragitean datza, ezaugarrien edo eman nahi zaion erabileraren aldetik. Honetan, zehazpen tekniko, osagai eta material, dakarren software, ergonomia edota beste ezaugarri funtzional batzuetan hobekuntza garrantzitsuak sartzean legoke aldaketa.
- Prozesu berrikuntza: ekoizpen edota banaketa metodo berria edo hauen hobekuntza nabarmena eragitean datza. Honetan, teknika, ekipamendu edota softwarean hobekuntza garrantzitsuak sartzen legoke gakoa.
- Marketing berrikuntza: merkaturatze-metodo berria ezartzean datza, produktuaren diseinu edo aurkezpenean, posizionamendu politikan (segmentu edo merkatu jakin batean), promozioan edota prezioan hobekuntza garrantzitsuak eragitean alegia.
- Antolaketa berrikuntza: negozio praktikei, lantokiari edota enpresaren kanpo/barne harremanei ezarritako antolaketa-metodo berrietan datza.

Irizpide orokor hauetatik abiatuta, dagokion ebaluazioa Goierriko eskualdearen testuingurua kontuan izanik egingo da.

VII. EPAI MAHAIKIDEAK

- GOIEKI-ko bi ordezkari (Goierriko Garapen Agentzia).
- LORTEK-eko ordezkari bat (Zentro Teknologikoa)
- Banakako ordezkari bat.
- Goierriko enpresetako 3 ordezkari.
- GOIHERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA-ko ordezkari bat

**GOIERRIKO ENPRESAN BURUTURIKO
BERRIKUNTZA PROIEKTU ONENARI I. SARIA**

ESKAERA ORRIA

Proiektuaren izena:

Sozietatearen izena:	
IFK:	EJZ ¹ nagusia:
Jarduera:	
Hekbidea:	Herria:
2007ko langile kopurua:	
Harremanetarako pertsona:	
Telefonoa:	Helbide elektronikoa:

Oharrak:

¹ Enpresak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan ageri duen jarduera nagusia